

ERRETERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Plan Orokorraren Bulegoa
Oficina del Plan General

II. LURRALDE-DIAGNOSTIKOA



II.01. LURRALDE-PLANGINTZA

II.01.01. 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Lurraldearen Antolamenduari buruzkoa.

4/1990 Legearen 1. artikulua ezartzen duenez, "Lege honen xedea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendurako tresnak definitzea eta arautzea, eta Administrazio Publikoek dagozkien eskumenak erabiliz garatu behar duten eta lurralde-eragina duten ekintzen koordinazioa ziurtatzeko beharrezkoak diren irizpide eta prozedurak ezartzea da."

Bestalde, 2.1 artikulua ezartzen duenez, "Euskal Autonomia Erkidegoko antolamendua ondoko tresnen bitartez egingo da:

- a) Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak.
- b) Lurraldearen Zatiko Planak.
- c) Lurraldearen Arloko Planak.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA)

LAAek (6. artikulua, 7 eta 8. atalak), besteak beste, ondoko zehaztapenak bildu behar dituzte:

- ✓ "Lurraldeko alor edo alde ezberdinetan behar diren etxebizitzak, agintaritzababespekoena batik bat, zenbatekoa ematea eta horien nongoa finkatzeko irizpideak eta hirigintza-antolakuntzarako egiterapideek kontuan izan beharreko parametroak jartzea eta, hori, helburu horretarako lurra eskuera izatea segurtatzeko.
- ✓ Lurraldeko alor ezberdinetako antolapidementsaren haztaketa."

LAAen eta hirigintza-plangintzen, Plan Orokor eta Berezien eta Arau Osagarri eta Subsidiarioen arteko lotura 4/1990 Legearen 9. artikuluan ezartzen da. Artikuluan ezarrita dagoenez, planeamendu-dokumentu horiek guztiak "Artezpideei egokitu beharko zaizkie" Legearen hurrenez hurreneko artikuluetan ezarri bezala.

Lurraldearen Zatiko Planak (LZP)

Bestalde, LZPek LAAak garatuko dituzte hauek mugatzen dituzten udalaz gaindiko area edo zonetan. Horrela, area edo zona hauetarako, Artezpideek ezartzen dituzten berariazko antolamendu-irizpideak zehaztuko dituzte. Besteak beste, ondoko zehaztapenak bildu beharko dituzte (12. artikulua, 1.f) atala):



Honako helburu hauetakoren baterako gorde beharreko lurren luze-zabalaren zenbaketa:

- ✓ Agintaritza-babespeko etxebizitzak (herri nahiz norbanako-alorrak sustatuzkoak), edo etorkizunean beren azken prezioa berariazko araupeketaz mugatu dakiekeen beste edozein eratakoak egiteko.
- ✓ Hirigintza-lanak egindako lur-eremuak eratzeko bide egin ahal izateko, industri lurraren herri-sustapena egiteko.

LZPen eta hirigintza-planen arteko erlazioa 15. artikuluan ezartzen da. Artikulu horrek adierazten duenez: *“Lurraldearekiko Zati-Egitamuek, Lurraren Legean arautzen diren Hirigintza-Egitamuak esatemodu eta neurri beretan lotzeko indarra izango dute”*. Azkenik, Seigarren Xedapen Gehigarriak ondokoa ezartzen du:

“Udalek, Lege honetako 6.7, 6.8 eta 12.1.f) ataletan ezarritako xedapenak betetzeko, hiri-lurren, egitarau eta guztizko hirigintza-lanetarako gai izanezko lurren alor eta sailak, herri-sustapeneko, Babes Ofizialeko nahiz Industri-Lurretako ezein jaurpidepetako etxebizitzei buruzkoan, Lurralde Antolakuntzako Artezpideetan eta Lurraldearekiko Zati Egitamuetan jarritako aitzin-usteak bete behar direneko Hiri Antolakuntzako Udal Egitamu Nagusian edo Udal Egitamuketako Ordezkatzezko Arauetan finkatuko dituzte; horretarako, beharrezko izanezko lurra sailkatu eta zermugatuko dute.”

“Egitamuketan urrezko idazatian oharmandako helbururako izendatutako Lurra Hirigintza Administraztik kasu bakoitzerako egoki deritzon jardute eraren bidez lortuko dira, Lur Jaurpideei eta Hiri Antolakuntzari buruzko legeetan agindutakoaren arabera.”

Lurraldearen Arloko Planak (LAP)

4/1990 Legearen 16. artikulua ondokoa ezartzen du:

16.1 “Eusko Jaurlaritzako Sailek gertatu eta lurraldean eragina izan dezaten egitamuak, Lurraldearekiko Alor Egitamutzat hartuko dira eta Eusko Jaurlaritzak erabaki dezanean aurkeztuko dira.

16.2 Lege honen ondorioetarako, Kondaira Lurraldeetako Foruzko Jardute Sailek gertatu eta onartu ditzaten egitamuak ere izaera berekoak izango dira.

Bestalde, LAPen eta hirigintza-planen arteko lotura 22. artikuluan ezarrita dago: *“Aurreko atalean esandako Lurraldearekiko Alor Egitamuek eta duten izaerarengatik udal eremu edo interesgarritasun hutsetik gorakoak izan eta, hala badagokio, horiek garatzen dituzten Antolakuntza Artezpideetan eta Lurraldearekiko Zati Egitamuetan zehaztutako lurralde-eremuan behar bezala sartuta egon daitezten egitamu eta egitasmoek, horietako xedapenen bidez, lur-jaurpideei buruzko legeetan araututako hirigintza-egitamuak lotu egingo dituzte, 15.2 atalean ezartzen diren ondorioetarako.”*



II.01.02. EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak ezartzen duenez, *“Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzarako Artezpideak izango dira Lege honetan araupetzen diren gainerako antolabideak aurkezteko abiapuntu nagusi, eta halaber lur-jaurpideei buruzko legeetan oharmandako antolakuntza-egitamuentzat ere, lege horiei egokitu beharko baitzaizkie betiere Herri Administrazio ezberdinek, direla autonomiazko, foruzko zein toki-mailakoak, bakoitza bere eskuduntzez baliatuz, gara ditzaten eta lurraldean eragina izan dezaten egitamu, egitarau eta ekintzak”*.

Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartutako LAAen arabera, nabaria da udal-plangintza ez dela nahikoa lurraldearen egituratzeari lotutako gai handiei ekin ahal izateko. Halaber, lurraldearen antolamenduari lotutako alderdi batzuk ezin dira koherentziaz landu Autonomia Erkidego osoaren ikuspegi orokorretik. Hori dela eta, *“Eskualde Egitura”* izenekoak mugatu dira.

“LAAetan identifikatutako Lurraldeko Eskualde Egiturei dagokien “bitarteko” lurralde-eskalaren tamaina fisiko eta funtzionala egokia da arazoak aztertze eta Lurraldearen Antolamendurako programak ezartzeko”.

“Lurraldeko Eskualde Egiturak eta bitarteko hiriak “funtsezko piezak” dira Autonomia Erkidegoaren testuinguru orokorrean lurralde-orekarako estrategiak aplikatzeko”.

LAAetan, Errenteriako udalerria Donostialdeko Eskualde Egituran barne hartuta dago. LAAen arabera, ondokoa azpimarratu beharra dago:

“Donostialdeko Eskualde Egitura osoa metropoli bihurtzeko prozesu batean sartuta dago. Donostia-San Sebastian, Pasaia, Errenteria eta Lezok continuum urbanizatu bat osatzen dute. Donostiako industria-ingurabideak gero eta ingurune-harreman eta harreman funtzional estuagoak ditu Gipuzkoako hiriburuarekin”.

.....

“ Donostiaren eta Pasaia, Errenteria eta Lezoren arteko bateratze morfologiko eta funtzionala eta udalerrri hauen ehunen hiri-berriztapena, LAA hauek aurre egin beharreko erronka garrantzitsua da”.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren formulazioari dagokionez, 28/1997 Dekretuaren ondoko artikulua hartu behar dira kontuan:



6. artikulua. Udal-planeamenduen bateragarritasuna.

2. Donostialdeko Eskualde Egiturarako Lurraldearen Zatiko Planak Donostia/San Sebastian, Pasaia, Errenteria, Lezo, Oiartzun, Hernani eta Astigarragako udalerrietako planeamendua bateratu beharko du.

7. artikulua. Bizilekuen zenbatzea udal-planeamenduan.

1. Lurraldearen Zatiko Planak onartu arte, bizileku-ahalmena zenbatzeko, Artezpideei dagokien dokumentuaren 1. Eranskinean agertzen diren irizpideak, adierazleak eta koefizienteak erabiliko ditu udal-planeamenduak.

8. artikulua. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua zenbatzea.

Lurraldearen Zatiko Planak idatzi arte, udal-planeamenduak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aplikatzen dituen jarduera ekonomikoetarako lurzoria zenbatzeko irizpideei lotuko zaie.

10. artikulua. Nekazaritza eta abeltzaintza-ustiapenari lotu gabeko familia bakarreko edo familia biko etxebizitza bakanaren erabilera.

1. Lurzoru ez-urbanizagarrian debekatuta dago familia bakarreko edo familia biko etxebizitzaren erabilera, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari lotuta daudela zalantzarik gabe frogatzen denean izan ezik.

2. Landa-inguruneko familia bakarreko edo familia biko etxebizitza bakanen eskaria landaguneetara eta hirigintza-mailan erabilera horretarako sailkatuta eta kalifikatuta dauden eremuetara zuzendu beharko da.

11. artikulua. Erauzpen-jarduerak.

Udal-planeamenduak, erauzpen-jardueren eragina jasotzen duten zonen eta erabilera horietara destina daitezkeen mugaketa barne hartu beharko du.



II.01.03. Donostialdeko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatikoa Plana.

LAak behin betiko onartu zituen 28/1997 Dekretuaren 6.2 artikulua ("Udal-planeamenduen bateragarritasuna") ezartzen duenez, "Donostialdeko Eskualde Egiturarako Lurraldearen Zatikoa Plana Donostia/San Sebastian, Pasaia, Errenteria, Lezo, Oiartzun, Hernani eta Astigarragako udalerrietako planeamendua bateratu beharko du".

1995ean, Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, Donostialdea-Bidasoa Behereko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatikoa Planaren Aurrelaburpena egin zen.

Dokumentu horretan adierazten denez, "Pasaia Badiako lurralde-eremua Hirigune Nagusi Finkatu gisa definitzen da eta, lehentasunez, hirigintza-kalifikazio berrirako eragiketak proposatzen dira bertan egiteko. Halaber, Portuaren inguruko hiri-areen barruan kokatutako industria-zona zaharkituen birmoldatzea bultzatu beharko da eta geratzen diren zona libre urrien okupazio berrirako eragiketen sustapenari lehentasuna emango zaio."

Testuinguru honetan, lehentasunezko ondoko eragiketa estrategikoa proposatzen da, besteak beste:

✓ Pontikako Ibarren birmoldatze integrala. Industriak espazio libreakin, zuzkidurekin eta bizileku-erakuntzekin ordezkatzeko.

Halaber, birgaitze integraleko ekintza horiek etorkizunean zonan izango den errepide-sare orokorraren zuinketa orokorrekin osatzea proposatzen da. Oinarrizko izaeraz, A-8 autobidearen egungo bidesari-sistema berriz aztertzea planteatzen da eta, epe ertain eta luzera berriz, Donostialdeko etorkizuneko Hegoaldeko Ingurabidea eraikitzea. Jarduketa hauen eta egungo N-I zeharbidearen saihebidetza (Molinaotik Lartzabalera) eraikitzearen bidez, N-I zeharbidea Portuaren inguruko bizilekuguneen arteko bide-konexiorako eta oinezkoen loturarako Hirigune handi bihurtu dadin lortu nahi da.

Pasaia Badiako hiri-aglomerazioaren ingurunean Uliá, Jaizkibel eta San Markos-Txoritokieta – Lau Haizeta mendiak etorkizuneko Hiri Inguruko Parke gisa finkatzea proposatzen da.

Halaber, Errenteriako A-8 autobidearen hegoaldeko hiri-garapena planeamenduan aurreikusita dauden industrialdeen sustapenera mugatzea eta Zamalbideren ingurunearen gainerako zatia Intentsitate Baxuko Hiri Garapen Barreiatuko Area gisa konfiguratzeko proposatzen da.

"Zamalbide-Agustinetako zona espazio-erreserbarako irizpide garbiekin babestu behar da, aurreikuspenen arabera area honetatik Hegoaldeko Ingurabidearen eta Abiadura Handiko Trenbidearen trazadurak igaroko baitira."



Plan Orokoraren Bulegoa
Oficina del Plan General

Horrez gain, Herrerako Poligonoa birmoldatzeko eragiketa bultzatzeko, egungo jarduera batzuk Portuaren kanpoaldean (Lezon, Erreterian, Landarron, Oiartzunen eta abar) aurreikusitako poligono berri batzuetara lekualdatzea programatu beharko da. Donostialdeko LZParen Aurrelaburpena landu ondoren, dokumentu horren garapena amaitu gabe dago hainbat arrazoi direla eta.

Ondoren, bidezko deialdia egin ondoren, Donostialdeko Eskualde Egituraren LZPa idazteko lanak IKAUR, SL enpresari esleitu zitzaizkion 2001eko abuztuaren 2ko ebazpenaren bidez (01.08.20ko GAO aldizkaria).

II.01.04. Euskal Autonomia Erkidegoko 2. Errepide Plan Orokorra (1999-2010).

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra, euskal administrazio publikoek errepideen arloko alorrez alorreko politika antolatu eta koordinatzeko funtsezko tresna da eta, gainerako plangintza-tresnetan barne hartzeko eta horiekin egituratzeko, Lurraldearen Arloko Planaren izaera du.

Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarriak ondokoa ezartzen du: "Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia onartzeak, honako hau dakar: lurraldearekiko zati eta alor egitamuak eta eraginpeko udal edo hirigintza-eremuetako hirigintza-egitamuketari buruzko antolabideak Egitamua garapen-proiektuak egiteratzearekin elkartuezinak izan daitezenean, Errepideen Egitamuari egokitzea. Egitasmo horiek onartzen baldin badira, horietan oharmandako lanak berehala egiteratzeko ahalmena emango dute".

Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 8ko 250/1999 Dekretuaren bidez (1999ko ekainaren 23ko EHAA aldizkaria), 1999-2010 aldirako 2. Errepide Plan Orokorra onartu zen. Errepide Plan Orokorren xede den sarean barne hartuta dauden eta udal-mugarte hau zeharkatzen duten errepideak A-8 eta N-I dira.

Zehazki, Erreterriako udal-mugarte zuzenean eraginpean hartzen duten 2. Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketak bat datoz Obra Nagusiaren eta Hiri Saihesbideen Programekin. Planaren aurreikuspenak ondoko tauletan adierazitakoak dira:

Programa: Obra Nagusia. Azpiegitura Berriak
Donostiako Bigarren Ingurabidea: Arizeta – Erreterria

Errepidea	Luzera Km.	Zeharkako sekzioa	Inbertsioa Mpta.
A - 8	14,50	2x7/10,5	23.497

Burutzapenaren hasierako urtea	Burutzapenaren amaierako urtea
2003	2007



Plan Orokorren Bulegoa
Oficina del Plan General

Programa: Hiri Saihesbideak
Pasaiako Saihesbidea

Errepidea	Luzera Km.	Zeharkako sekzioa	Inbertsioa Mpta.
N - I	2,20		1.500

Burutzapenaren hasierako urtea	Burutzapenaren amaierako urtea
2000	2002

Programa: Hiri Saihesbideak
Errenteriako Saihesbidea (1. fasea)

Luzera Km.	Errepidea	Zeharkako sekzioa	Inbertsioa Mpta.
2,50	N - I	7/10	388

Burutzapenaren hasierako urtea	Burutzapenaren amaierako urtea
1996	1999

Programa: Hiri Saihesbideak
Errenteriako Saihesbidea (2. fasea)

Errepidea	Luzera Km.	Zeharkako sekzioa	Inbertsioa Mpta.
N - I	2,50	7/10	1.900

Burutzapenaren hasierako urtea	Burutzapenaren amaierako urtea
2005	2007

Azpimarratu beharra dago Donostiako Bigarren Ingurabidea eraiki ondoren egungo A-8 autobideak –Oartzun eta Arizeta artean– “Eskualdeko Saihesbide” izaera izango duela.

II.01.05. EAEko Lurraldearen Arloko Planeamendua.

Hona hemen formulatutako Lurraldearen Arloko Planeamenduko dokumentuen zerrenda:

- *Trenbide Sarearen LAPa.*
- *Ibaien eta Erreken Ertzak Atolatzeko LAPa (Kantauri Itsasoko isurialdea).*
- *Itsasertza Antolatu eta Babesteko LAPa.*
- *Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren LAPa.*



Plan Orokoraren Bulegoa
Oficina del Plan General

- *Telekomunikazioen LAPa.*
- *Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzoruaren LAPa.*
- *Haize Energiaren LAPa.*
- *Nekazaritza eta Basogintzako eta Ingurumen Naturaleko LAPa.*

Trenbide Sarearen LAPa.

LAAek, azpiegiturei dagokienez adierazten dutenez, aurreikusitako garraio-sistema EAeko guneen arteko kanpoko eta barruko konexiorako aukerak optimizatzeko diseinatu da: "Artezpideetan martxan dauden plan eta proiektu garrantzitsuak barne hartzen dira eta euskal hirien sistema Europan integratzeko, Euskadiko hiru hiriburuak lotzeko, tamaina ertaineko hirien sarea antolatzeko, Eskualde Egituren lurraldearen barne-egituraketa hobea lortzeko eta lurraldearen oreka eta osagarritasun handiagoa bilatzeko askotariko ekintza osagarriak proposatzen dira."

EAeko Trenbide Sarearen LAPari Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilantetako Sailburuaren 1998ko martxoaren 17ko Aginduaren bidez (1998ko martxoaren 26ko 58 zk. EHAA) eman zitzaion hasierako onarpena.

Dokumentu horretan, Errenteriako udal-mugartea zeharkatzen duen aurreikusitako Trenbide Sare Berriaren trenbide-traza definituta dago. Informazio publikorako izapidean, Errenteriako Udalak, LAP honetan aurreikusitako irtenbidea ikusita, alegazio bat aurkeztu zuen. Bertan, Sare Berriaren traza Masti-Loidi Industria Sektorearen inguruetan hegoaldera lekualdatzea eskatzen zuen, bertan aurreikusitako industria-jarduketaren garapenean eraginik izan ez zezan. 2000ko azaroaren 28an, Garraio eta Herrilantetako Sailburuak alegazioaren onarpena jakinarazi zuen.

LAP honetan, halaber, egungo sareen zein sare berrien trenbide-linea bakoitzean aurreikusitako jarduketak xehatuta eta ustiatzailearen (Renfe edo Euskotren-en) arabera berezita daude. Jarduketarik azpimarragarriena Ibilbide Luzeko Trenbide Sare Berriari lotutakoa da ("Euskal Y" deitutakoa). Sare hau, aukeratutako alternatiba finkatu ondoren, zehatz-mehatz definituta dago (trazadura, oinarritzko parametroak, instalazioak eta abar).

Ibilbide Luzeko Trenbide Sare Berria

Trenbide Sare Berri honek zuzenean hartzen du eraginpean Errenteriako udal-mugartea.

Urumea ibaiaren ibarretik hasita –Ergobian–, aurreikusitako trenbide-koridorea Txoritokieta eta San Markos mendien azpitik igaroko da (zabortegiaren inguruan). GI-3671 errepidea zeharkatuko du eta Arraguako zonaraino iritsiko da (A-8 autobidearen inguruan, Errenteria eta Oiartzungo udalerrien arteko mugatik hurbil). Ondoren, trenbide-trazak A-8 autobidearekiko paralelo jarraituko du Bidasoa ibairaino.



Plan Orokorren Bulegoa
Oficina del Plan General

Trazadurari dagokionez, 2.740 m-ko luzera, %15eko goranzko aldapa eta 4.000 m-ko erradioa (bigarren erdialdean) izango duen tunel bat zeharkatu ondoren, Lau Haizetako Parkearen azpitik jarraituko du eta Errenterian azaleratuko da, Parkearen mugan. Gainazaletik 1 km-ko ibilbidea egingo du (4.000 m-ko erradioarekin eta %2ko beheranzko aldaparekin). Gainazaleko tarte honen barruan, hurrenez hurren 40 eta 90 metroko bi bidezubi bereizten dira.

660 m-ko luzera eta %15eko beheranzko aldapa izango duen tunel bat pasa ondoren, traza Oiartzungo haranera iritsiko da eta A-8 autobidearekiko paralelo joango da (100 metro ingurura). Tarte Oiartzun ibaiaren, GI-3671 errepidearen eta Ugaldetxoko poligonoaren gaineko bidezubi batean amaituko da. Tartearen amaiera (72 + 970 kp.), Errenteria eta Oiartzunen arteko mugan kokatuko da.

Trenbide Sare Berrirako proiektuaren izapideei dagokienez, ondoko ebazpenak aipatu behar dira: Sustapen Ministerioko Azpiegituren Estatu Idazkaritzak egindako "Euskadiko trenbide-sare berrirako proiektua" izeneko informazio-azterlanaren gaineko ingurumenarekiko eraginaren deklarazioa formulatzen duen Ingurumeneko Idazkaritza Nagusiaren 2000ko urriaren 22ko Ebazpena (2000ko azaroaren 6ko BOE aldizkaria) eta Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berrirako proiektuari buruzko informazio-azterlana behin betiko eta informazio publikorako espedientea onartzen dituen Azpiegituren Estatu Idazkaritzaren 2000ko azaroaren 24ko Ebazpena (2001eko otsailaren 5eko BOE aldizkaria).

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, 2001eko otsailaren 27an egindako bileran, EAeko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartu zuen (01.04.09ko EHAA).

Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, SA (Euskotren)

LAP honetan Euskotrenek ustiatutako EAeren titulartasuneko lineei lotutako helburuak eta jarduketak adierazten dira. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren planteamendu estrategikoa ondoko puntuetan labur daiteke:

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saila etengabe egiten ari den azterlanek eta metatutako nazioarteko esperientziak argi erakutsi dute EuskoTrenen trenbide sarea garrantzi handikoa izango dela eskualderako hamar urte barru. Izan ere, errepideetako pilaketa hazkorrak autobus sarea trenerantz bideratuko baitu eta, ondoren, hiri guneeetako ibilgailuaren erabilera mugatzeko neurriak hartzea beharrezkoa izango denean, orduan, trena ezinbestekoa izango da eta.

Ondorioztapen orokor honek honako jarduera ildo zehaztarazten du: "Gaur egun euskal trenbide sarea osatzen duten linea, zerbitzu eta geltokiak mantentzea". Ikuspuntu horri atxikiz, uler daiteke ezin zaiola zerbitzua kendu sareari loturik dagoen ezein guneri, ez eta mantenimendu barik ere trenbide sareko ezein tarteunerik. Horrek esan nahi du aktiboak mantendu egingo direla errepideetako pilaketak (hiriburuetakoak ez ezik, gainerako guneeetakoak ere) mugikortasun beharrezko asetzeko trena ezinbesteko bilakarazten duenerako. (Prozesu hori gertatu da dagoeneko Europako iparraldeko herrialde askotan eta



egiaztatu egin da trenbidearen aukera zaindu ez zen kasuetan hura berreskuratzea, posible izan denean, oso garestia izan dela).

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak planteatutako trenbide-jarduketaren planteamendu estrategikoa ondoko puntuetan labur daiteke:

- ✓ Hiri-inguruko merkatuen eskaintza handitzea: era honetan, zerbitzua hiriburuetako inguruen pixkanakako saturazioaren ondorioz eskaria handiagoa deneko puntuetan kontzentratu nahi da.
- ✓ Trenbide-eskaintzaren kalitate-atalase egoki batzuk ezartzea. Erlazio ertainetarako 30 minutuko eta hiri-inguruko erlazioetarako 15 minutuko gutxieneko tarteak planteatzen dira. Tarte hauek, eskariak kanpo geratzen diren baina etorkizuneko protagonismoan oinarrituta lortu nahi den kalitatearekin bat datozen eskaintza-mailak dira.
- ✓ Trenbidearen aukera etorkizuneko ezinbesteko bide gisa mantentzea: hiriburuetarako aurreikusten diren pilaketa-mailen ondorioz, trenak funtsezko leku estrategiko bat betetzen du bide-pilaketaren ondorioei aurre egiteko alternatiba gisa. Hortaz, bere ondareak zerbitzu-antolamendu gisa zaindu behar dira (horien artean, egungo trazaduraren jarraitasuna –korridore gisa– azpimarratu behar da).
- ✓ Eragin-zonaren hedapena Erakarpin Eremuan hobekuntzak egitearen bidez: jarduketa kritiko gisa, geltokien eragin-erradioa handitzea planteatzen da. Horretarako, oinezkoentzako hurbilerraztasunean hobekuntzak egin, bizikletentzako hurbilerraztasuna barne hartu eta eskemak ezarriko dira (tarifa bidez koordinatutako autobus-biltzaileekin).

Fase hauek guztiak, proposamenen bideragarritasuna baldintzatu dezaketen alderdi guztiak pixkanaka kontuan hartuko dituen prozesu ireki baten ondorioz ezarriko dira. Oinarriko helburu gisa, ustiapenak ibilbideei zein maiztasunei dagokienez arrazionalizatzea eta sinplifikatzea eta eskaintza Donostiako "aldirietan" (Zumaian eta Irunen) oinarritzea ezartzen da.

Proposatutako jarduketak:

Garraio eta Herrilan Sailak Euskotren-eko lineetarako aurreikusitako jarduketak, kontzeptu eta irizpide ezberdinei erantzuten dieten bi multzotan banatuta daude:

"Lineak egokitzeko jarduketak".

"Lineak zabaldu eta hobetzeko jarduketak".

➤ *Donostia-Hendaia lineako jarduketa-proposamena.*

Donostia-Hendaia lineak dagoeneko Euskotrenen trenbide-ustiapenaren osotasunean duen garrantzia dela medio, eta eskaera etorkizunean areagotzeko aukerak kontuan izanik, azpiegitura horren hobekuntza helburu gisa proposatzen da, garraio-eskaintzaren hazkunderari erantzun ahal izateko. Ukitutako eremua Lasarte-Hendaia tarte da.



LAPak hainbat jarduketa planteatzen ditu linea osoan. Errenteriako udal-mugartea zuzenean eraginpean hartzen duten jarduketei dagokienez, ondokoak aipatu behar dira:

Sistema malgutzeko, Herreratik aurrerako tartea bikoiztu egin behar da, maiztasunak handitzen diren heinean tartea bere ustiapen-mugara hurbiltzen baita horrela.

Usurbilgo tailer berrien ezarpenaren ondorioz, Errenteriako tailerren eraikina kendu ahal izango da. Errenterian Geraleku berri kokatzea aurreikusita dago ("Fanderia" Sektorean).

➤ *Tailer eta kotxeretako jarduketak.*

Donostia-Hendaia lineak dagoeneko Euskotrenen trenbide-ustiapenaren osotasunean duen garrantzia dela medio, eta eskaera etorkizunean areagotzeko aukerak kontuan izanik, azpiegitura horren hobekuntza helburu gisa proposatzen da, garraio-eskaintzaren hazkunderari erantzun ahal izateko.

➤ *Gomendioak.*

LAAek trenbidearen etorkizuneko garapenari ematen dioten garrantziak geltokien eta inguruen hiri-protagonismo handiagoa ekarri behar du. Horrela, artezpide hauek ezartzen dutenez, geltokien inguruneari tratamendu berezia eman beharko dio udal-planeamenduak.

➤ *Geltokiaren ingurunearen hobekuntza (komunikazioen sistema orokor baterako hurbilketa gisa, ez oztopo gisa).*

➤ *Area mugakideen tratamendua Geltokiak hartu eta, hala badagokie, beren balio funtzionala eta eraikuntza-balioa errespetatu eta nabarmendu dezaten.*

Trenbiderako helburu nagusi hau lortzeko planteatzen den oinarrizko baldintzetako bat, geltokien "eragin birtualeko erradioa" handitzea eta, horrela, "erakarpen-eremu" handiagoa lortzea da. Ildo honetan, udal-planeamenduko dokumentuen berrikuspenetan jarduketaren tratamendua berezia ez ezik eta, lehenetsunez, ondoko alderdiak ere kontuan hartzea ezartzen da:

➤ *Oinezkoentzako sarbidearen hobekuntza behar bezala identifikatutako jatorri-helmuga bati erantzungo dioten ongi definitu eta lehenetsitako ardatz batzuen bidez.*

➤ *Oinezkoen ingurunearen hobekuntza oinezkoen eta ibilgailuen arteko gatazka-puntuak kentzearen bidez.*



Plan Orokoraren Bulegoa
Oficina del Plan General

- *Ibilbideen (eta ordutegien) eta dauden hiriko edo hiri-inguruko zerbitzuen arteko koordinazioa; autobus-geltokietarako dartsenak kokatuko dira, hurbil eta ikuspen handiarekin.*
- *Aparkaleku-ekipamenduen instalazioa Geltokiaren ondoan, biltegiratzearen segurtasuna bermatzeko moduko ikuspenarekin.*
- *Trenbide-pasaguneko jarduketak ebazteko proposamenen bidez (inplikaturako administrazioak eta partikularrak barne hartuta).*

Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPa (Kantauri Itsasoko isurialdea).

Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez (1999ko otsailaren 18ko EHAA), behin betiko onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPa (Kantauri Itsasoko isurialdea).

LAParen aplikazio-eremua, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan isurtzen duten Kantauri Itsasoko arro hidrologikoetako ur-laster guztien bi aldeetan kokatutako 100 m-ko zabalerako lurzoru-errenkadek (sortzen direnetik bokaleraino) eta beren urtegien inguruan kokatutako 200 m-ko zabalerako lurzoru-errenkadek osatzen dute.

LAP honetan, ibaiak eta errekek ondoko eran zonakatuta edo tartetan banatuta daude:

- 1.- Ertzen zonakatzea, daukaten ingurumen-osagaiaren arabera.
- 2.- Ur-lasterrak tartetan banatzea, beren arro hidraulikoen arabera.
- 3.- Ertzen zonakatzea, daukaten hirigintza-osagaiaren arabera.

Udal-planeamenduak, lurzoru ez-urbanizagarriko ubideen ertzetan, "Lurrazaleko Urak Babesteko Lurzoru Ez-Urbanizagarriaren" kategoria ezarriko du LAP honen ondoriozko zonen arabera. Gainazaleko Urak Babesteko Lurzoru Ez-Urbanizagarri honek, Plan honen Araudiaren F.1 ataleko 1. puntuan definitutako zabalerak izango ditu ertz bakoitzean.

Aurreko puntuan adierazitakoaz gain, udal-planeamenduak Lurraldearen Arloko Plan honetan definitutako irizpideak jaso beharko ditu ubideen alde bakoitzeko 100 m-ko zabalerako errenkadarako.

Ertzen zonakatzea, daukaten ingurumen-osagaiaren arabera

Ingurune fisikoa babesteko zonak, balio ekologiko, paisajistiko, produktibo eta zientifiko-kulturalen kontserbazioa bermatzeko komenigarritasunari, hainbat arriskuren aurrean (higadura edo akuiferoen poluzioa) egin beharreko defentsari edota beren berezko bokazioarekin bat ez datozen erabileren edo jardueren ondorioz degradatuta dauden lekuak berreskuratzeko beharrari erantzuten diotenak dira.



Lau zona berezi bereizten dira. Horiez gain, beste batzuek ez dute kalifikazio berezirik eta oinarizko izaera generikoko ingurumena babesteko politika baten xede izan beharko dute. Hona hemen zona horiek:

- ✓ Lehentasunezko Interes Naturalistikoko Zonetako ertzak.
- ✓ Ongi kontserbatutako landaredia duten ertzak.
- ✓ Higadura eta labaintze arriskuko edo akuiferoen urrakortasuneko zonetako ertzak (LAAen baldintzapen gainjarriak).
- ✓ Berreskuratzeko beharra duten ertzak.

Ur-lasterak tartetan banatzea, beren arro hidraulikoen arabera

LAP honetan kontuan hartutako ur-laster guztietarako, arroak puntu bakoitzean duen azaleraren arabera zortzi tartetan banatzea ezartzen da. Zehazki, ondoko eskala proposatzen da:

Tarteak	Azalera (arroaren km ²)
VI	600 km ² < C
V	400 km ² < A < 600 km ²
IV	200 km ² < A ≤ 400 km ²
III	100 km ² < A ≤ 200 km ²
II	50 km ² < A < 100 km ²
I	10 km ² < A < 50 km ²
0	1 km ² < A < 10 km ²
00	A < 1 km ²

VI-I mailako tarteak, 10 km²-tik gorako arroa duten ur-lasterrei dagozkie eta beren azterketa zehaztua 1/25.000 eskalan egindako orri grafikoaren bildumetan garatuta dago (osagai hidraulikoa, ingurumen-osagaia eta hirigintza-osagaia barne).

0 mailako tarteak 1-10 km²-ko arroa duten ur-lasterrei dagozkie. Erreka edo erreka deitzen zaie eta Planaren kartografian islatuta daude grafikoki. Hala ere, ertz hauen ezaugarriek ez dute berriazko azterketa xehaturik.

00 mailako tarteak 1 km²-tik beherako arroa duten ur-lasterrei dagozkie (askotan eten egiten dira). Isurketa deitzen zaie.

Errenteriako udal-mugartearen kasu zehatzean, ondoko arroen banaketa ezartzen da:

- Oiazun ibaiaren arroa
- Urumea ibaiaren arroa



Hona hemen bien xehapena:

III mailako tartea ($100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$)

- Urumea ibaiaren arroa:
Urumea ibaia, 21,5 km-tik 31,4 km-ra (Añarbe ibaiarekiko elkargunea)

II mailako tartea ($50 < A \leq 100 \text{ km}^2$)

- Oiartzun ibaiaren arroa:
Oiartzun ibaia, 0 km-tik (Pasaiako Portuko bokalea, portu-zerbitzuko zubiaren azpian kokatutako ibaiadarraren puntua) 3,4 km-ra (Sarobe errekarrekiko elkargunea).
- Urumea ibaiaren arroa:
Añarbe ibaia, 0 km-tik (Urumea ibaiarekiko elkargunea) Añarbeko urtegiara.

0 mailako tartea ($1 < A \leq 10 \text{ km}^2$)

LAParen informazio grafikoan berariazko identifikaziorik gabe irudikatuta dauden errekek dira.

00 mailako tartea ($A \leq 1 \text{ km}^2$)

LAParen dokumentazio grafikoan irudikatuta ez dauden erreka txikiak edo aldizkako isurketen ur-lasterak dira.

Ertzen zonakatzea, daukaten hirigintza-osagaiaren arabera

LAPean barne hartutako ubide guztientzat ertzetako zonakatze xehakaturik ezarri da, hirigintza-garapenean duten mailaren arabera:

- A. Landa-Eremuko Ertzak.
- B. Hiriarteko Komunikabideetako Azpiegiturek okupatutako ertzak.
- C. Garatutako Eremuetako Ertzak.
- D. Hirigintza-Garapen Berrietarako aukera duten Ertzak.

Amaitzeko, azpimarratu beharra dago Ibaietako ertzen Antolamendurako LAPeko Bigarren Xedapen Iragankorrak honakoa ezartzen duela:

"Hiri Antolamendurako Plan Orokorretan, Planeamendurako Arau Osagarriak eta Subsidiarioak egiteko eta onartzeko prozeduretan, bai eta berrikuspen eta aldakuntzetakoetan, Lurraldearen Arloko Plan hau indarrean sartzen den unean onespenez ez luketenetan, Planean dauden zehaztapenetara egokitu beharko dira."



Itsasertza Antolatu eta Babesteko LAPa.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak, 1999ko irailaren 21eko dataz, EAEko Itsasertzeko Babeserako eta Antolamendurako LAPa igorri zuen, bi hilabeteko epean, jasotzen zen unetik zenbatzen hasita, oharrak, iradokizunak, alternatibak eta proposamenak egin ahal izan zitezten.

LAParen Aurrerapenaren aurkezpenean honakoa adierazten da LAPari dagokionez: "euskal itsasertzaren babeserako esparru eta tresna integral izateko asmoarekin jaio da. Horretarako, beharrezkoa da itsasoko eta lurreko espazioko eta euren eragineko espazioko erabilera eta jarduera guztiak kontuan hartzea, badaudenak eta potentzialak, eta trantsizio-zona gisa hartuta trataera integratua ematea, lurreko zein itsasoko ingurua barne hartuz."

Adierazi beharra dago 1 Eranskinean: "Udalaren Hiri Planeamendurako Atxikiduretan" LAPeko zehaztapenetan "Barne hartutako udalak" eta "Salbuesitako udalak" bereizten direla. Bigarren sailkapen honetan dago, hain zuzen ere Errenteriako udala.

Zona Hezeak Antolatu eta Babesteko LAPa

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak, 1998ko martxoaren 30eko datan, EAEko Zona Hezeetako LAParen Aurrerapena igorri zuen, bi hilabeteko epean, jasotzen zen unetik zenbatzen hasita, oharrak, iradokizunak, alternatibak eta proposamenak egin ahal izan zitezten. Udalak ez zuen inolako iradokizunik egin.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailburuaren 2001eko apirilaren 23ko Aginduaren bidez, LAPari hasierako onespina eman zaio, Lurraldeko Administrazio Publiko guztiei entzuteko tramitea beteaz (01.06.07 EHAA).

Dokumentu honetan arloko araudi bat aurreikusten da ondoko helburu hauekin:

1. Zona heze bakoitzak dauzkan balio ekologiko, paisajistiko, produktibo eta zientifiko-kulturalen kontserbazioa bermatzea, honakoen bidez:
 - a) Zona hezeetan erabileren eta jardueren arautzea.
 - b) Interes handiko zona hezeen babesa.
 - c) Antolamenduaren eta babesaren koordinazioa.
 - d) Kontserbazioan jarduera tradizionalak eta herritarrek parte hartzea lortzea.
 - e) Baliabide Hidrikoaren eta hari loturiko lurraldearen babesa, babeserako neurriak ezarriz.



2. Paisajearen, faunaren, floraren eta landarediaren hobekuntza, berreskuratzea eta birgaitzea ahalbidetzea zona heze degradatuetan.
3. Natur baliabideen balioa handitzea ahalbidetuko duten ekintza-ildoak ezartzea.

Antolamendurako eremua honakoa da: zona heze honetako ur-azaletik edo kubetatik landa neurtutako 200 metroko ertzak mugatzen duena, urtegiaren inguruko honako eraztunen sektorekatze hau ezarriz:

1. Ur-azalaren eta ertzen zona (kubeta): hezegunean eta inguruko ertzetan bildutako uraren goreneko maila adierazten du.
2. Hurbileko bandaren zona: kubetaren inguruko koroa zirkularra barne hartzen du, 50 m-ko batez besteko zabalerakoa.
3. Inguruko zona: aurreko zonaren mugaren eta kubetaren inguruko zirkuluaren arteko koroak osatzen du, haren ertzetik 200 m-ko distantzian.
4. Arroaren zona (azpiarroa) hidrografikoa: morfologiaren aldetik aurrekoaren antzekoa da, kasu batzuetan lurzoru urbanizagarria daukalarik.

Bestalde, antolamendurako proposamenaren garapen-maila zehaztearren, LAPek zona hezeak honako hiru talde hauetan sailkatzen ditu:

I Taldea: Aldarrikapenak naturgune babestu bezala adierazitako inguru hezeak.

II Taldea: LAP hau indarrean sartu baino lehen behin-betiko onespina izan zuen hirigintza-planeamendu berezi bidez babestutako zona hezeak, eta LAPak berak antolatutako zonak.

III Taldea: LAParen inbentarioan barne hartutako gainerako inguru hezeak.

Lurralde Historikoen eta tipologiaren arabera antolatutako Euskal Herriko zona hezeen inbentarioan, "inguru heze artifizial" bezala dago Añarbeko urtegia, Urumearen arroan kokatua, I Taldeari adskribatua (Aiako Harria). Gainera, LAP horren aurrerapenean, Errenteriako udal-mugarteari dagokionez, honakoa adierazten da:

"Basa-bizitza hartzeko gaitasunik handiena ibai-presek daukate (...) bai eta erabiltzen ez diren urtegi batzuek ere, hala nola Errenteriako Landarbasokoak (EG4)..."

LAPean aurreikusitako afekzio nagusia honakoa adierazten duena da: udal-planeamendua lurzoru ez urbanizagarriko ondoko kategorien eta azpikategorien arabera hainbat eremu mugatzera behartuko duela:



- ✓ Babes berezia (EP)
- ✓ Ingurumen-hobekuntza:
 - Ekosistemen hobekuntzako areak (MA 1)
 - Berreskuratu beharreko degradatutako areak (MA 2)
- ✓ Azalerako uren babesa (S)
- ✓ Nekazaritzako eta abelazkuntzako eta landako zona (NA)
- ✓ Basokoa:
 - Basoko babeseko (FP)
 - Basoko intentsiboa (BI)

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren LAPa.

1999an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak honako lan hau enkargatu zuen: "Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren lurralde-antolamendurako azterketa teknikoaren idazkuntza".

2001eko uztailan Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailburuaren ofizio bidez, 13. artikuluari dagokionez, 44/1990 Legearen Lehen Xedapen Gehigarrian ezarritako prozeduraren hasiera jakinarazten da, eta EAEko Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurraldearen Arloko Plana igortzen da.

LAP horren funtsezko irizpide bezala honakoa hartzen da: hirigintzaren arloan prestatutako lurzoru, bizileku eta hornikuntza izaerako hiri-zentroetatik kanpo, behar duten agente ekonomikoen multzoak sortutako lurzoru-eskaeren kontsiderazio globala. Lurzoru hori jarduera ekonomikoak garatzeko euskarri fisikoa litzateke, jarduera horiek nahiz zuzenean produktiboak izan nahiz hirugarren sektorean barne hartutakoak izan.

2. atalean "Informazioa eta Diagnostikoa" Gipuzkoako LHari dagozkion "Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-sorkuntzarako esku-hartzeen" barruan eta bereziki udal honi dagozkionetan honakoak adierazten dira:

Jarduera	Erakunde sustatzailea	Azalera gordina Ha.-tan
Txirrita/Maleo Poligonoa	SPRI/GFA	18
Masti/Loidi Poligonoa	Udala	21



Plan Orokorren Bulegoa
Oficina del Plan General

Udal Osoko bilkurak 2001eko urriaren 26an egindako bileran, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailari iradokizun bat aurkezteko erabakia hartu zuen, honakoa adieraziz:

"Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Sorkuntza Publikorako Lurraldearen Arloko Planean, Errenteriako udal-mugarrean Eskualde-mailako Egiburu eta Lanterneta Poligonoak ezartzea."

Uztailaren 29ko 2002ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarki bat argitaratu zuten eta bertan adierazten denez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburuaren eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren 2002ko maiatzaren 16ko Aginduaren bidez irizpide, helburu eta soluzio orokorrak onetsi ziren, eta haien arabera egin beharko dira Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurraldearen Arloko Planaren behin betiko dokumentuen gauzatze-lanak.

Telekomunikazioen LAPa

Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailak, 1994ko uztailaren 29ko datuz, EAEko Telekomunikazioetako LAParen Aurrerapena igorri zuen, bi hilabeteko epean, jasotzen zen unetik zenbatzen hasita, oharrak, iradokizunak, alternatibak eta proposamenak egin ahal izan zitezten.

Planaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko telekomunikazioen lurralde-plangintzarako artezpideak eta irizpideak definitzea, Lurraldearen Antolamendurako tresnetan barne hartu beharko delarik.

Planak Gobernuko Sail guztiek eta orokorrean Euskal Administrazioak erabil dezaketen oinarizko zerbitzu-sorta baten sarrera orokorra barne hartuko du, hala nola:

- TBko eta irrati publikoaren seinalearen garraioa.
- Datuen garraioa.
- Banda zabaleko Sareen Interkonektibitatea.
- Kanpoko sareen konektibitatea.
- Barne telefonia.

EAEko Telekomunikazioen sareak hiru Lurralde Historikoen garapen sozio-ekonomikoari egindako ekarpenak aztertuko dira lanean, bai eta euskal enpresen hobekuntza eta lehiakortasunari eta herritar guztien bizi-kalitatearen ongizateari eta hobekuntzari egindako ekarpena ere.



Plan Orokoraren Bulegoa
Oficina del Plan General

Lana honetan datza batez ere: Lurralde eta Hirigintza antolamenduak barne hartu behar duen telekomunikazio-azpiegituraren deskribapena eta ebaluazio kualitatibo eta kuantitatiboa, bai eta ezaugarri sozio-ekonomikoen, azpiegitura-ekipamenduen eta hiru Lurralde Historikoen garapenerako balorazio baten arabera azpiegitura honen lurralde-kokapenerako proposamena.

Eduki horiek Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko eskema eta ereduari dagokienez ezarrita geratzen diren Artezpide horiek formulazio-prozesuan mota orotako proposamen eta zehaztapenekin bat etorri beharko dute. Azterlana, Lurralde eta Hirigintza Antolamenduekin loturik, Eusko Jaurlaritzatik eratortzen diren edozein lerruneko arau eta araudi-proiektuetara egokituko da horrela, bai eta lurzoruaren politikarekin eta politika industrialarekin erlazionatutako neurriekin ere, haiekiko koherentziari eutsiz.

Sarearen trazaduraren deskribapen orokortuaz gain, trazadura horiek eta ez beste batzuk aukeratzeko erabili diren irizpideak definituko ditu, eta hala badagokio, sarearen lurralde-hedapen handienaren bilaketan trazadura alternatiboak planteatuko ditu, horrela etorkizunean, ahal bezainbat enpresak eta ahal bezainbat herritarrek ere haren onurak jaso ahal izan ditzaten.

Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapena azterturik, Errenteriako udal-mugarteari dagokionez, lehen mailako sarearen bideratzeak duen kokapena nabarmendu beharra dago, izan ere Euskotrenbideak – Ferrocarriles Vascos-en Donostia – San Sebastián / Hendaia linean trenbidearen eraginpeko zonaren bidez gertatzen baita.

Etxebizitzan Sustapen Publikorako Lurzoruaren LAPa.

1999an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak honako lan hau enkargatu zuen: "Etxebizitzan sustapen publikorako Lurzorua lortzeko Lurraldearen Arloko Planaren idazkuntza."

Haize Energiaren LAPa

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak, 2001eko uztailaren 11n (01.07.24ko EHAA) hasierako onespina ematea erabaki zuen, bi hilabeteko aldi batez jendaurreko informazioko tramitea betez.

Nekazaritza eta Basogintzako eta Ingurumen Naturaleko LAPa

Eusko Jaurlaritzako nekazaritza eta Arrantza Sailak, 2001eko irailaren 18an Lurraldearen Arloko Plan horren Aurrerapena bidaltzea erabaki zuen, bi hilabeteko aldi batez jendaurreko informazioko tramitea betez.



II.01.06. Gipuzkoako Errepideen Lurraldearen Arloko Plana

A. 17/1994 Foru Arauak bere 15. artikuluan Gipuzkoako Errepidetako Plan Orokorrak honako helburu hauek izango dituela ezartzen du:

- a) Foru Aldundiko Errepide Sarerako helburu orokorrak ezartzea.
- b) Euren sailkapenaren arabera errepide horiek zein ezaugarri eduki beharko dituzten ezartzea.
- c) Planean ezarritako helburuak betetzearen aldi jakin batean zehar errepide horietan egin beharreko jardueren programak ezartzea.

Gipuzkoako Errepidetako Lurralde Planak Lurraldearen Arloko Plan izaera edukiko du, Euskal Herriko lurralde-antolamenduko legerian ezarritakoari dagokionez.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Diputatuaren 1998ko abuztuaren 24ko Foru Agindu bidez, jendearen aurrera atera zen Gipuzkoako Errepideen Lurraldearen Arloko Plana, bidezkotzat jotzen diren alegazioak eta iradokizunak egiteko.

Udalak alegazio bat aurkeztu zuen Planaren behin-betiko dokumentuan hauei loturiko hainbat gai kontuan har zitezten eta bertan barne har zitezten: GI-2638 Errepidea; egungo Iztietea - Lezo bide-korapiloa (I EN); GI-3675 Errepidea: Astigarragako Bentak - Pontika; "Zabaltzeak eta hobekuntzak"; Industria-Poligonoak; 2. Ingurabidea.

B. Gipuzkoako Errepidetako Foru Aginduaren arabera sare-moten definizioa jarrian dagona da:

Lehentasuneko Sareak (sare gorria) nazioarteko ibilbideak biltzen ditu, mugako pasabideetarako, interes orokorreko portuetarako eta aireportuetarako sarbideak, bide luzeko autonomien arteko trafiko handia daukaten ibilbideak, bai eta ibilgailu astunen bolumen handia edo barneko edo kanpoko salgai arriskutsuen karga handia dutenak ere. Sare-kategoria honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak A-8ko bidesaririk gabeko tartearak barne hartzen ditu (Donostiako Saihesbidea eta Behobiako Nazioarteko Zubia) eta Tolosa-Nafarroa A-15 berria.

Oinarrizko Sarea (sare laranja) Lehentasuneko Sarekoak izan gabe, honako errepideez osatuta dago: Lurralde Historikoa ibilbide osoak eratuz egituratzen duten errepideez eta trafiko handia edukiz Lurralde Historikoak elkarren artean edo beste Erkidegoekin konektatzen dituzten errepideez.

Eskualdearteko Sareak (sare berdea) trafiko garrantzitsurik gabe, alboko eskualdeak komunikatzen dituzten errepideak barne hartzen ditu.



Plan Orokorren Bulegoa
Oficina del Plan General

Herriarteko Sareak (sare horia eta grisa) Gipuzkoako gainerako errepideak barne hartzen ditu ea honakoetan banatzen da:

- ✓ Herriarteko sare horia: Eskualdearteko sarekoak izan gabe, hainbat udaletako biziguneak elkarrekin lotzeko edo udal bateko herrigunerako sarbideko errepideak biltzen ditu.
- ✓ Herriarteko sare gris nagusia eta sekundarioa; aurreko sareetakoak ez diren errepideez osatua.

Bi lehen kategoriek, eskualdeko errepideren batekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepidetako Plan Orokorrean, trafikoaren garrantzia kontuan hartuz Erkidegoko Lurralde Historikoak elkarren artean lotzen dituzten edo inguruko Erkidegoetako errepideekin lotzen dituzten errepideen eta hauetako trafikoa aldatzeko eragina izan dezaketen errepide guztien multzoa bezala definitutako Eskualde Sarea osatzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepidetako Plan Orokorrean diagnostikatutako Eskualde Sare honen barruan, Planak helburu duen Sarea nabarmentzen da, Lehentasuneko Sarea eta Oinarrizko Sarearen zati handi batek osatua.

Errenteriako udalerriri dagokionez, Gipuzkoako Errepidetako Lurraldearen Arloko Planak ondoko jarduera hauek aurreikusten ditu, programen arabera:

Programa: Egokitzapenak eta Zabaltzeak
Eskualdearteko Sarea GI 2134 Errenteria - Oiartzun

Luzera Km	Sekzioa Mota	Inbertsioa Mpta	Obrari ekiteko hirurtekoa
2,5	7/9	216	2005-2007

Programa: Zeharbide Egokitzapena
Eskualdearteko Sarea GI 2132 Arraguako Zeharbidea

Luzera Km	Sekzioa Mota	Inbertsioa Mpta	Obrari ekiteko hirurtekoa
	7/8	100	1999-2001

Programa: Zabaltzeak eta hobekuntzak
Herriarteko Sare Gris nagusia GI-3671 Astigarragako Bentak.Errenteria (Pontika)

Luzera Km	Sekzioa Mota	Inbertsioa Mpta	Obrari ekiteko hirurtekoa
2,5	6/7	108	1999-2001



Programa: Elkarguneen berrantolamendua eta sarbideen kontrola
Herriarteko Sarea GI-2638 Errenteria-Lezo (Industriagunearen amaiera)

Luzera Km	Sekzioa Mota	Inbertsioa Mpta	Obrari ekiteko hurutekoa
2,0	7/10	130	1999-2001



II.02. HIRIGINTZA-PLANEAMENDUA ESKUALDEKO UDALETAN

II.02.01. Irizpide orokorrak.

Lurralde Antolamendurako Artezpideetan, 19. atalean "Udal Plangintzak Bateragarri Egitea" izenekoan helburu bezala honakoa adierazten da: "Udal-plangintzaren koordinazioa, mugakideak diren eta elkarrekin erlazionatuta dauden udalerrien Plan Orokorrerako edo Arau Subsidiarioetako zehaztapenak era integratuan eta aipatzen duten errealitate funtzional eta morfologikoarekin bat etorri eginda egon daitezzen ahaleginduz."

Lurralde Antolamendurako Artezpideak planeamenduen bateragarritasunerako mekanismoak aplikatu behar direneko udal-taldeak definitzen dira. Horrela eta besteren artean Donostia – San Sebastián, Errenteria, Lezo, Pasaia, Oiartzun, Hernani eta Astigarragako udalek osatzen duten taldea definitzen da, ondoko ezaugarri hauekin:

"Donostia-Beterriko Eskualde Egituran Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren hirialde integraturik garrantzitsuena aurkitzen da, Euskal Hiriburuen Gune Anitzeko Sistemaren nodoetako bat eratzen duena. Bilbokoaren kasuan bezalaxe, udal-izaera gainditzen duten eta esparru zabalago batean konpondu behar diren problema eta aukerak barne hartzen ditu. Ondorioz, hiri-plangintza integratu baten behar nabarmena ikus daiteke. Egungo hiri-jarraipenak ez ditu berau osatzen duten udalerrien ingurugiro-kalitateko maila analogoak ez eta azpiegituren integrazioa garantizatzen duten elementuak ere barne hartzen. Plangintzak bateragarri egiteko proposatzen diren mekanismoen bitartez Hirialde honen osotasunari koherentzia handiagoa eman nahi zaio. Era berean beharrezkoa da Oiartzungo udalerriko egoitza-lurzoruak modu bateragarrian antolatzea, Errenteriarengan eragin handia duten lurzorua baitira. Era berean, Donostia-San Sebastián plangintza Hernanikoarekin eta Astigarragakoarekin bateragarri egin behar da Urumea ibaiaren ibarrean."

Bestalde, Donostialdeko Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapenak honakoa adierazten du:

"Gipuzkoako udal-mugarteen egungo mugaketak joan zen mendean Estatuko udal-erri guztientzat egin zen mugaketa du jatorria, aldaketa txikiren batzuk izan diren arren. Dena den, mugaketa hau Gipuzkoako lurraldearen egungo hiri-sistemaren itxura eragin duten industrializazio eta urbanizazio prozesuak baino lehen egin zen. Horrela beraz, hiriguneen hazkundera eta eraldaketa udal-mugarteen mugaketa honen baldintzapen juridiko-instituzionalaren eremuan egiaztatuta da."

Beharrezkoa da adieraztea, muga horietatik datozen baldintzen lehen ebaluazioa egiterakoan, une historiko jakin batean lurralde-gobernuaren antolamenduan erabakigarriak izan baziren ere, muga horiek gaur egunean gaindituta geratu direla, Gipuzkoako lurralde-historian aurrekaririk izan ez duen



hiri-hazkunde eta hiri-zabaltzearen ondorioz izan den garapenagatik eta eraldaketagatik gaindituta, hain zuzen ere.

Orain mende bat baino gehiago, herrigune sakabanatuetako eta komunikabide-sistema homogeno batez konektatutako eta homogenotasunez banatutako herrigunez osatutako egoera hartan, lurraldea hiriguneetara atxiki zuten udal-mugaketak, krisialdian murgiltzen dira urbanizazioaren eta industrializazioaren neurriak, deskribatutako ezaugarritapen hau desitxuratzen dutenean. Urbanizazio eta industrializazio prozesu hau, Gipuzkoako lurraldean azken 150 urtetan bereizgarria izan dena, testuinguru geografiko berezi batean gertatu da, gaur egungo egoeretan kontuan hartu behar delarik.

Horrela, Estatuan orokorrean probintzia-hiriburuen inguruan biztanleria biltzeko ohiko prozesua, Donostiako eta Gipuzkoako kasuan modu jakin batean gertatzen da. Donostiako lurraldeko biztanleriaren laurden bat bakarrik edukitzeak, biztanleria-dentsitatea area edo eskualde guztietan uniformeki garaia edukitzeari lotuta, lurralde okupatzeko oso modu espezifikoa adierazten du. Fenomeno honen arrazoiak, besteren artean, hauek dira:

✓ Gipuzkoako lurraldeak dituen 2.100 km²-etatik 100 km²-k, %15eko malda baino gutxiago dute. Lurraldearen zati honek 700.000 biztanleen inguruko biztanleria hartzen du.

✓ Malda garaiak dituen azalera ez da erabilera produktiboetarako egokia, eta horrek soilik nekazaritzan lan egiten duen biztanleria urria izatea eragiten du.

✓ Dentsitate garbi orokorra Km² bakoitzeko 10.000 biztanletara hurbiltzen da. Urbanizatutako eremu edo area jakin batzuetan, 14.000 biz/km² portzentajera iristen da. Kilometro koadro honetan, bizilekutarako lurzorua, industrialia, tertziarioa, azpiegiturak, eta nekazaritzarako kalitateko lurzorua, halakorik dagoen lekuetan, sartu beharra dago.

Zirkunstantzia hauek, geografia fisikoaren ondoriozkoak, eta industrializazio-prozesuaren ondoriozkoak, lurraldeko azalera erabilgarriaren gehienezko erabilera behartu dute: haranetako behealdean zabaltzea batez ere. Horrela, gaur egunean gune bakartu batzuk izugarri hazi dira, hiri-ehunak haranetan barrena eta kokatzen diren korridore espazialeetan barrena hedatuz, batzuetan alboko herriguneekin bat egiteraino eta hiri-garapen jarraitua osatzeraino iritsiz, non oso zaila edo ezinezkoa gertatzen baita jakitea non hasten den udalerrri bat eta non amaitzen den bestea. Gune bakoitzak daukan nortasun-adierazleek zerikusi gutxi dute, edo agian bat ere ez, muga administratiboaren egoera konkretuarekin.

Asentamendu-sistema baten konbertsio-prozesu batean sartuta gaude, lurraldean bakanduta eta sakabanatuta dauden guneen berezko sistemari dagokion prozesuan, hain zuzen ere. Sistema honetan haranen sistemarekin bat



datorren eta hiri-garapeneko den korridore-multzo bat dago, elkarren artean zeharkako konexioak dituzten korridorez osatua, geografiak eta urbanizazioak itxuratutakoa. Eta garapen jarraituko edo erdi jarraituko korridoreen hiri-sistema bateko itxuraketa honetan, maiz fisikoki ikusteko gaitasuna galdu duten udal-mugek, gaur egunean hesi juridiko-instituzionala sortzen dute, epe ertain eta luzerako garapena eta hazkundera bideratuko duten lurralde-ereduen definizioan gainditu beharreko hesia, hain zuzen ere.

Baina udal-muga hauek gainditzearen auzian lehentasunezko arreta behar duena ez da bakarrik, ez eta batez ere, ertzetan gertatzen dena, edo mugakide diren lurraldeen artean gertatzen diren bateragarritasun gatazkak. Dena den, arazo edo auzi jakin edo puntual hauek, gehienetan, ukitutako bi edo hiru udalerrien ekarpenez konpon daitezke. Hala eta guztiz ere, Donostiaren inguruan 30 Km-tan metropolitanizazio-prozesu gero eta handiagoak, eta Gipuzkoako beste hiri-area batzuetan gertatutako eskualde-agregazioko prozesuek, etorkizuneko lurralde-egiturak eta hiri-estrategiak hartzeak aztertu eta oinarritu behar diren eremuen itxuratzailer bezala, trazendentzia-maila handiagoa dute egungo balioari dagokionez eta udal-mugak gainditzeari dagokionez ere.

Illo berean, udal bakoitzeko hiri-planeamenduetan barne hartu eta kontuan hartu behar den "udal-lurraldearen egitura orokor eta organikoa", Gipuzkoari dagokionez, ez da mugakide dituen udalerrien araberakoa bakarrik. Aldez aurretik multzoko eredu bat definituz ezarri behar da, arazo berak dituzten unitateak adieraziz, zeinen erreferentziako eremu espaziala gaur egun ez datorren bat udal-mugekin.

Udal-mugak gainditzeak duen trazendentzia, aurrez izan den hiri-garapenak sortutako arazoen analisi osatuaren esparruan, baliabideen espazio-erabilgarritasunen geroratu ezinezko globalizazio beharrean ere kokatu behar da, bai eta lurralde-bilakaeraren aurreikusitako joerak egungo muga horietako oztupoak nabarmen gainditu dituen hiri-egoera batetik abiatuz gertatzen direla kontuan hartuz.

Ezin uler daiteke, adibidez, Donostiako hiri-aglomerazioaren lurralde-egitura eskualdeko lurralde-inguruan gertatzen diren harreman espazial eta funtzionalak kontuan hartu gabe. Udal-mugartearen gainezkatzeko-egoerak, analisisien, prospekzioen eta plangintzen erreferentziazko oinarri espazial bezala, badu Gipuzkoako planeamenduaren historia hurbilean hainbat aurrekari. Une honetan oraindik ere bada udalaz gaindiko planeamendua egiteko behar kontzeptual eta antolamenduzkoa, lurraldea oinarritzat hartuta. Eta halaber, indarreko administrazio eta erakunde antolamenduekin bat datorren lege-esparrua ere bada, non hura gauzatu daitekeen, lurraldearen etorkizunaren prospekzio egokia egiteko udal-mugartearen egungo mugek ezartzen duten hesi edo oztupo kontzeptuala gaindituz."



Jarraian udal honen mugakide diren lurraldeei dagokienez eta udal bakoitzari dagokionez indarrean dagoen hirigintza-planeamendua deskribatzen da.

II.02.02. Astigarraga.

Astigarragako udalak b) motako Arau Subsidiarioak ditu, 1999ko ekainaren 15ean behin-betiko onartuak.

Errenteriako udal-mugartearekin mugakide diren hirigintza-eremuen zerrenda.

15 Area: "Bentetako Auzoa"

Sailkapen orokorra	Lurzoru urbanizagarria
Kalifikazio orokorra	Z.R.3 Zona, Etxebizitzetarako dentsitate urrikoa
Kalifikazio xehakaturik	
Finkatzeko eraikinak	2 etxebizitza
Eraikitzeak	8 etxebizitza
Guztira	10 etxebizitza

"Lau-Haizeta" parkea

"Lau-Haizeta" Plan Bereziaren bidez garatzen da.

Astigarraga	Ukitutako eremua (ha)	Portzentajea
	97,9 ha	16,3

Moduluak	Azalera
Txoritokieta	42,759ha
San Markos	52,656ha
Zuñalorreta	32,106ha

Errenteriarekin muga duen gainerako lurzorua lurzoru ez urbanizagarri bezala sailkatuta dago.

II.02.03. Donostia - San Sebastián

Donostiako udalak Hiri-Antolamendurako Plan Orokor bat dauka, 1995eko azaroaren 27an behin-betiko onartu zena.



Errenteriako udal-mugartearekin muga duten hirigintza-eremuak.

“AL.21” HEA (Esnabide)

Sailkapen orokorra	Programatu gabeko lurzoru urbanizagarria	8,84Ha
Kalifikazio orokorra	Industria Bereziko “B.200” Zona (errepideko garraiorako zerbitzu-erabilera)	56.938 m ²
	Trenbide-sarea (SO) “E.200”	140 m ²
	Errepideak (SO) “E.110”	31.322 m ²
Eraikuntza-aprobetxamendua		2.847 m ² (t)
Zonako eraikigarritasuna		0.05 m ² (t)/ m ²

“AL.23” HEA (Las Mercedes)

Sailkapen orokorra	Hiri-lurzorua	5,23Ha
Kalifikazio orokorra	Eraikuntza irekiko bizilekutarako “A.300” Zona	43.481 m ²
	Errepideak (SO) “E.110”	8.477 m ²
Eraikuntza-aprobetxamendua	Dagoena finkatua	6.302 m ²
	Garapen berrikoa	2.847 m ²
Aurreikusitako etxebizitza-kopurua	Dagoena finkatua	66etx.
	Garapen berrikoa	12etx.

“AL.19” HEA (Landarro)

Sailkapen orokorra	Lurzoru urbanizagarri ez programatua	301.706 m ²
Kalifikazio orokorra	Industriagune Komuna “B.100”	280.795 m ²
	Errepideak (SO) “E.110”	2.128 m ²
	Hiri-bideak (SO) “E.120”	18.747 m ²
Aprovechamiento edificatorio		113.870 m ² (t)
Eraikuntza-aprobetxamendua		0.42 m ² (t)/ m ²



“AL.25” HEA (Luzuriaga)

Sailkapen orokorra	Hiri-lurzoria	2.97 Ha
Kalifikazio orokorra	Industriagune komuna “B.100”	29.721 m ²
Eraikuntza-aprobetxamendua		13.948 m ² (t)
Zonako eraikigarritasuna		0.55 m ² (t)/ m ²

Pasaiako lotunea

Azalera	7.99Ha
Lurzoruaren sailkapena	Lurzoru ez urbanizagarria
Kalifikazio orokorra	79.929 m ²

“Lau-Haizeta” parkea

27/“Lau-Haizeta” Plan Bereziaren bidez garatzen da.

Donostia/San Sebastián	Ukitutako eremua (ha)	Portzentajea
	297.0 ha	49.3

Moduluak	Azalera	
Ametzagaina	37,365 ha	
Larratxo	8,984 ha	
San Markos	52,656 ha	Errenteriarekin elkarbanatua
Txoritokieta	42,759 ha	Astigarraga eta Errenteriarekin elkarbanatua
Zuñalorreta	32,106 ha	Astigarraga eta Errenteriarekin elkarbanatua
Merkear	15,169 ha	

Errenteriarekin muga duen lurzuaren gainerakoa lurzoru ez urbanizagarri komun bezala sailkatuta dago.

II.02.04. Hernani

Hernaniko udalak b) motako Arau Subsidiarioak dauzka, 1995eko ekainaren 27an behin-betiko onartutakoak.



Errenteriako udal-mugartearekin mugakide diren hirigintza-eremuen zerrenda:

Saillkapen orokorra	Lurzoru ez urbanizagarria
	Lurzoru ez urbanizagarria basogintzako interesa duena.

II.02.05. Lezo

Lezoko udalak b) motako Arau Subsidiariok dauzka, 1987ko Maiatzaren 27an behin-betikoz onartutakoak.

Errenteriako udal-mugartearekin mugakide diren hirigintza-eremuen zerrenda:

13 POLIGONOA. Papelera

Saillkapen orokorra	Hiri-lurzorua	10.090 m ²
Kalifikazio orokorra	Industriala	
Eraikuntza-aprobetxamendua	Dagoena kontsolidatua	3.000 m ²
	Lurzati erabilgarria	7.090 m ²
	Eraikitako partzelako aprobetxamendua, lurzati osoaren arabera	0,437 m ² /m ²
Aurreikusitako etxebizitza-kopurua	Dagoen erabilerari loturiko etxebizitza onartzen da	

Plan Berezi bat egingo da Errenteriako Udal-mugartearen alboan.

28 POLIGONOA. Campsa.

Saillkapen orokorra	Lurzoru urbanizagarria	9.740 m ²
Kalifikazio orokorra	Industriala	
Eraikuntza-aprobetxamendua	Dagoena kontsolidatua	4.275 m ²
	Eraikitako partzelako aprobetxamendua, lurzati osoaren arabera	0,44 m ² /m ²

29 POLIGONOA.

Saillkapen orokorra	Hiri-lurzorua	8.010 m ²
Kalifikazio orokorra	Industria-Zerbitzuak	
Eraikuntza-aprobetxamendua	Lurzati eraikigarria	2.450 m ²
BEPB bat egingo da		

Portuko zonarekin ere badu muga.



Errenteriarekin muga egiten duen lurzoruaren gainerakoa lurzoru ez urbanizagarri komun bezala dago sailkatua.

AASek aldaketa hauek izan dituzte:

AASen aldaketa	Onespena
29 Poligonoaren mugak eta ordenantzak zuzentzeko	27/03/90
Kirol-ekipamenduari eta haren eragin-eremuko 1 SOri dagokiona	15/12/95
27 poligonoan, Altamirako zona	08/10/96

II.02.06. Oartzun

Oartzungo udalak b) motako Arau Subsidiarioak dauzka, 1996ko Ekainaren 27an behin-betiko onartutakoak.

Errenteriako udal-mugartearekin mugakide diren hirigintza-eremuen zerrenda:

12 AREA. Arragua

Sailkapen orokorra	Hiri-lurzorua. Barne-erreformako area.	49.689 m ²
Kalifikazio orokorra	Etxebizitzetarakoa (A-I)	
Antolamendu xehakaturia	Kirolerakoa eta soziala	2.806 m ²
	Espazio libre publikoak	8.951 m ²
	Herriguneko etxebizitzetarakoa	
	SO trenbidea	
	SO Bide-sarea	
Aprobetxamenduak	Dagoena kontsolidatua	265etxe.
	Garapen berrikoa	43etxe.
	Guztira	308etxe.
Eraikitzeke dentsitatea	62etxe./ha	
Eraikigarritasuna	0,69 m ² / m ²	

35 AREA. Arangurengo industriagunea.

Sailkapen orokorra	Hiri-lurzorua. Zuzeneko burutzapeneko area	84.000 m ²
Kalifikazio orokorra	Industrialia (B-IV)	
Antolamendu xehakaturia	Handizkako arrain-azoka	31.500 m ²
	3. eta 4. kategoriako industria	36.230 m ²
	Berdegunea	10.850 m ²
	bideak	5.420 m ²
Aprobetxamendua	50.009 m ²	
Eraikigarritasuna	0,6 m ² / m ²	



35B AREA. Arangurengo Area Urbanizagarria.

Sailkapen orokorra	Lurzoru urbanizagarria	3.500 m ²
Kalifikazio orokorra	Industriala (B-IV)	
Antolamendu xehakatua	4. mailako industria	
Aprobetxamenduak		2.835 m ²
Eraikigarritasuna		0,81 m ² / m ²

47 AREA. Talaiako industriagunea.

Sailkapen orokorra	Lurzoru urbanizagarria	84.000 m ²
Kalifikazio orokorra	Industrial (B-IV)	
Antolamendu xehakatua	3. eta 4. kategoriako industria	
Aprobetxamenduak	Finkatua	5.100 m ²
	eskuragarria	27.636 m ²
	Guztira	32.736 m ²
Eraikigarritasuna		0,51 m ² / m ²

69 AREA. Lartzabalgo Anbulatorioa. (*)

Errenteriarri dagokion eremua eta bertako AASSetan kalifikatua eta sailkatua.

Sailkapen orokorra	Hiri-lurzorua, area finkatua	3.500 m ²
Kalifikazio orokorra	SO asistentziala	
Antolamendu xehakatua	Errenteriako anbulatorioa	3.500 m ²
Aprobetxamenduak	Kontsolidatua	2.240 m ²
Eraikigarritasuna		0,64 m ² / m ²

Arraguako sektorea (Oartzun-Errenteria)

Oartzungo AASSen 12, 34 eta 68 areak, Errenteriako 39 sektorearekin batera (Lartzabal-Arragua) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zuzendaritzak garatutako Zatiko Plan bitartez garatuko dira.

Errenteriarekin muga duen lurzoruaren gainerakoa lurzoru ez urbanizagarri bezala sailkatua dago.

AASSek ondoko aldaketa hauek izan dituzte:



AASSen aldaketa	Onespena
Arragua Hegoko arearako 1991.06.25eko DKen erabakiari AASSak egokitzeko proiektua	99/06/30

II.02.07. Pasaia

Pasaia udalak b) motako Arau Subsidiarioak dauzka, 1997ko Urriaren 31n behin-betiko onespena jaso zutenak.

Errenteriako udal-mugartearekin mugakide diren hirigintza-eremuen zerrenda:

3.01 "Ipar Zabalgunea"

Sailkapen orokorra	Lurzoru urbanizagarria
---------------------------	------------------------

3.02 "Hego Zabalgunea"

Sailkapen orokorra	Lurzoru urbanizagarria	4.05 Ha
Kalifikazio orokorra	Eraikigarritasun irekiko Bizilekutarako Zona "A.300" Itsasadarrak eta Padurak(SO) "F.320"	37.322 m ² 3.129 m ²
Zonako eraikigarritasuna		0.91 m ² (t)/*m ²
Eraikuntza- aprobetxamendua		33.840 m ² (t) Etxebizitza: 24.400 m ² (t) Erabilera tertziarioak: 9.440 m ²
Aurreikusitako etxebizitza kopurua		271 etxe. (75%-203 etxe. BOE)

3.03 "Molinao Itsasadarra"

Sailkapen orokorra	Lurzoru urbanizagarria	1.99 Ha
Kalifikazio orokorra	Eraikigarritasun Irekiko Bizilekutarako Zona "A.300"	4.828 m ²
Zonako Eraikigarritasuna		5.649 m ² (t)/50 etxe.
Eraikuntza- aprobetxamendua	Industriagune komuna "B.100" Hiri-bideak(SO) "E.120" Trenbide-sarea(SO) "E.200" Hiri-parkea "F.100" Itsasadar eta Padurak (SO) "F.320."	3.742 m ² 1.234 m ² 510 m ² 797 m ² 8.305 m ²
Aurreikusitako etxebizitza- kopurua		50 etxe.



Eremuak "N-1/A-8" lotunerako aurreikusitako irtenbide berriaren eragina izango du.

Ingururako aurreikuspenak:

- "Topo"aren trenbidearen iparraldean –"3.03.1 Hiri-Area Katuen Etxadia"- dauden eraikinen partezko finkatzea eta eraberritzea etxebizitza-erabileretarako.
- Molinaoko itsasadarreko ertzean Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoko lurzatietan dauden industria-eraikinen eraispena, "Pabinsa" izeneko eraikina salbuetsiz, ondo zainduta baitago eta enpresa-mordo batek baitihardu bertan lanean. Horrek zeharo zailtzen du eraikin hori hustea -"Hiri-Areak" "3.03.2 Molinao Itsasadarra" eta "3.03.3 Pabinsa"- . Eskuhartzea desjabetzapen bitartez egingo da.
- Antxon sartzeko eta bertatik irteteko bide berri baten irekiera – aurrerago adierazi dugunez, "N-1" eta "A-8"aren arteko loturarako Foru Aldundiak onartutako irtenbideak baldintzatua.

"3.03.2 Hiri-Area Molinao Itsasadarrean" dauden industria-eraikinek hartzen dituzten "itsas eta lehorreko jabari publikoko" lurzoruen erreskate-proposamena, "azterlanak" ukitutako eremuan aurreikusitako funtsezko hiri-berriztatzerako helburuetako bat da. Helburu hau lortzeko beharrezkoa da finantzaketa publikoa, eta kontuan hartu beharko da "Pasaiako Badia Indarberritzeko Planean".

Portuko zonarekin mugakide da halaber.